

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

217n. zenbakia  
jorrailla/apirilla 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



ITXAS-ALDE  
BAKIO'KO  
DANTZA-TALDEA

## BADOA... INORAKO BIDEAN



Zer izango gara gu?

Gure etorkizunaren jaube izan nai geunke eta ezin. Gure etorkizuna eta gu guc be criotzearen menpean gagoz. Berak dauka azken itza. Gu aren morroi gara. Beti gagoz zain, a noiz etorriko, eta zain ez gagozanean bera agertuten da, beste bank, bat-hatean, ezustean.

Nor gara gu?

Zer dago eriotzearen ostean? Ilteko bakarrik bizi gara, ala?... Eta onelako itaunak egin izan dauz beti gizakiak, istoria aurretik. Eta nork erantzun daikez itaun oneek? Inork ez! Gogoeta asko idatzi dira gai onei buruz baina inork ez dau aurkitu erantzunik. Arrazoizko erantzunik ez, beintzat.

### Badoa

Baten bakarrik  
biziten itzi.  
bein bakarrik  
arnastu aal,  
eta dana doa  
or  
aurbeeran,  
trokarik troka.  
arriak bailiran...  
Arrizko animak,  
arezko gorputzak,  
baina suzko biotzak,  
su gartsua,  
bizitu biztua,  
biziteko guraz  
eta arnasteko gogoz...,  
eta badoa

Gu ez gara inor, iltean desagertu eta kito, zure izena mapatik kenduko da. Gutxi batzuk bakarrik doguz gogoan istorian zear. Baina ez pertsona "onak" ziralako, besteen ganetik zeozertan nabarmendu diralako baino. Ospetsua ez bazara, ez zara inor. munduarentzat, beintzat. Ospetsua izan bear ete dot gogoratu izateko?

Bidebakokeria au, munduak erasten dabenctariko bat besterik ez da. Gure lan guztiak, lorpenak... il eta pikutara doaz.

Ona emen nire gogoeta isladatuten daben olerki bi:

### Inorako bidean

Eriotzea elduko jat,  
l egingo naz,  
joan cgingo naz,  
desagertu egingo naz...  
eta zer jazoko da'?'  
Aldatuko etc da mundua?  
Munduak ni barik  
iraungo dau,  
jasango dauz  
jasan bearrekoak,  
ni barik...  
Eun urte barru,  
czagutuko ete dau inork nire izena?  
Jakingo dau inork nor nazan?  
Gogoratuko da inor nitaz?  
Eukiko nau inork here gomutan?  
Ez!  
Il egingo naz eta aaztu egingo dira nitaz.  
Joan egingo naz eta aizeak  
nire itzak eroango dauz,  
inorako bidean...

ANARTZ ORMAZA  
(BAKION, 15 URTE)

### "BAKIO, ERRI EUSKALDUNA" IZENDATZEA

Euskerea Bakioko jatorrizko eta bere-berea dan izkuntzea dogu. Gizaldi luzeetan, agaitik edo hesteagaitik, euskerea, bizitza ofizialek leengo eta, azkenaldiotan. bizitza sozialetik geroago, apurka-apurka albo baten baztertuta lotu da.

Bada sasoia euskereari jagokozan lekua eta mailea begirune osoz atzera emoteko. Gizaldien joanean txitea -pitean galdutako izena eta izana birreskuratu claiazan. atan be.

Aurrean esandakoa bideratu eta zuzenduteko artu bear diran ncurricariko bat, Bakioko Udalak ekintza ofizial eta agiriko baten "BAKIO, ERRI EUSKALDUNA" izendatutea da.

Izendatze au Bakion Euskerearen Normalkuntza Egitasmo Orokorrearen barruan kokatu eta beronen oinarrizko abiaburutzat artu hear da. Onelango neurriak artuteak beragaz dakarzan ondorio eta betehear guzti-guztiak onartuta. Zabantza barik, erabagi politiko-linguistikoa dana, eta udalcrriko Euskerearen Normalkuntza Egitasmoari ate politiko nagusia zabaldu bear leuskion naurria dana. Ate politiko nagusi onek asmoak euki ezeze, asmoak egia biurtu be bear dauz. Izkuntza Normalkuntzea beteiko baldinlza egokiak eta lagungarriak adierazo bear deuskuz neurri politiko onek. Ez beite azalcan lotu, etorri beite muinera!

Onelango erabagiaren elburua argi dago. Bertoko Bakioko nortasuna. arcan da, nortasun euskalduna aldarrikalu, bertokoen zein erbestekoen aurrean argi be agirian izteko asmoaz, eta crabilerea bultzatutea, gurean euskerea barriro nagusitu artean. Euskeraz biziteko crabagi sendoa aldarrikatutca, azken baten. Etorkizuna etorri be, euskeretk jatorku eta.

Ortik sotuko danak bertoko zein erbestekoengan eragina izan daian. Bertokoak euren nortasunaz jaubetu eta lotsatu edo bildurtu bage a edonon eta edonoiz erakutsi daikeen. Erbestekoak, bestetik, bertoko nortasunaz jaubetu, beroneri begirune izanda, Bakioko euskal nortasunari doitu daitekezan. Euron, batzuk eta hestean, jokabide linguistikoek euskeren bat egin daian.


Erabagi onen barri Bakioko erritarrak zein erbestekoak jakitun imini bear dira. Erabagi au udalerriko sartu-urtekeretan izki aundiz eta euskeraz baka-rik bide-erakusle batzuen bidez adicrazo bear da (Gomutatu Eielandako "GAELTACHT" lunraldeak adierazotakoak). Bakioko erritar eta udatiarrei izendatze onen zergaitia eta elburua era txukunean eta ofizialean adierazo bear jakez.

Erabagi au edabideelan be zabaldu hear da, Udalaren idazki ofizial batez zabaldu be.

OARRA: (GAELTACHT: Eirelandako gaelikera izkuntzea bizirik dauan lurralde babestua)

Iniaki MARTIARTU  
1997ko zezeilcan

# ITXAS-ALDE BAKIOKO DANTZA TALDEAREN BARRIAK: TURKIARA EGINDAKO JOAN-ETORRIA



*Itxas-alde (Bakio. Euskal Kultura -taldea.*

Joan dan 1996ko apirilaren 12tik 16ra, ITXAS-ALDEko dantzariak nagusienak Turkiako uririk garrantzitsuenara –Istanbulera– joan ginan, bertako IFD taldeko arduradunek konbidatu-ta.

Bidaia abioiez egin genduan, Frankfurtetik, eta bertan eurek ipinitako autobusez ibili ginan. Gure egoitza eskola aundi bat izan zan, Turkiako ospetsuena eta garestiena.

Istanbul uria oso interesgarria da, geien bat, Europan eta Asian dagoalako. 12.000.000 biztanle daukatz, eta eurretatik 7.000.000 Asiako alderdian. Gure eskola Asian egoan, eta istanbuleko erdira joateko, 40 km egin bear izaten genduzan, autobide aundi batez, Bosforoko zubi nagusira eldu arte. Asiako zati orretan kokatzen dira sendirik txiroenak eta islamiar kulturarik arrakastatsuenak. Istanbul kontraste aundikoa da, Europako alderdian gizartea laikitat agertzen da baina bertan be, ainbat andere eta neskato gazte ikusten dira "txador"egaz jantzita.

Istanbulen bertan ainbat toki ikusi genduzan: Bazar nagusia, Santa Sofia mezkita, mezkita urdina, eta abar... Bosforotik gora ere eroan ginduezan, itsas-ontziz, Itsaso Baltzaraino, eta afari on batera konbidatu ginduezan, baita jantoki eder baten jan ere.

Azkenengo arratsaldean izan zan dantza-ekitaldia, eta bertako taldeakaz batera, euskal folkloreaken 30 minutuko agerpen txikitxu bat eskeini genduan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako dantzakaz.

Euren folklorea oso desbardina da, eta uztailaren 30ean ikusi aal izango genduan Bakion.

ITXAS-ALDEko dan Unai Beitiaren (Artza baserrikoa) egun orretako bizikerea eta iruzkina dakartsueguz jarraian:

## ITXAS-ALDE TURKIAN

ITXAS-ALDE taldean zintzo jarraitzen dogu geure eginbeartan eta oraingoan, jorrailaren amabitik amaseirarte, Turkian izan gara Istanbuloko talde bategaz artuemonak sendotu eta geure dantzak bertan erakustekotan.

Ez genkian bidai onetan zer aurkitutko genduan, baina guztiz ona ta aberasgarria izan jaku esperientzia barri au.

Bertako jendeak oso ondo artu gaitu eta gustora egon gara, an izan garan egunetan. Gainera, euskal dantzak ikusitakoan arrituta lotu ziran, ain eder eta eurentzako ezezagunak ziralako.

Olan ba, pozik eta indar barrituta etorri gara udako ekitaldiak ondo prestatzeko eta lanean segitzeko.

UNAI BEITIA  
ITXAS-ALDEko dantzaria

## AGUR BERO BAT

Denboraldi luze baten idazteko gauza izan ez nazen arren. badira egun batzuk asia nazala, gaur idatzi, biar idatzi etabar, geldiro, geldiro.

Dagonillan izan da urte bete eskuetako eskumutur biak ausi nebazala, obeto esanda apurtu egin jatazala. Denda batetik urtekeran baldosa baten beaztopatu, muzturrez aurrera eta auspez, luze-luze jausi nintzala. Jakiña, lurrean aurpegiagaz ez jotearren eskuak ipiñi bear eta eskuetako azur biak apurtu.

Orain, zelan idazten asi eta Aita Santi'ren eriotza aitatu ez? bai, letra apal oneixen bidez bere irudia gogoratzen dot, guztion atsekabeen murgilduz. Ain zuzen be beste puntu eta apartekoa izan da bai Aita Santi Onaindia'ren eriotzaren barria ezagutzea.

Nik beragaz ez neban iñoiz berba egiteko aukerarik izan "EUSKERAZALEAK ALKARTEA"K, Bilbo'n Eskolapioetan urtero ospatzen daua Euskal Astea, arratsalde edo illuntze baten entzun neutsan bere txandan. Orduzetik, baita ariñagotik bere (Xabier Peña'ren k]aseetan bere liburuakandik sarritan ikasten genduan-eta) aal izan dodaz berak idatzitako idatzi guztiak irakurri eta orixe izan da nik egindakoa aren izakera bizia (Aita Santi'rena diñot) ondo ezagutzeko.

Nire eritxi apalez, zalantza barik esan lei, berau izan

dala Euskalerrri'ko idazlerik onenatarikoa, edo beintzat onenatarikoen artean dagola. Onelako ezbear baten ezin bada ukatu nire samiña!

Nik ez dakit nundik-nora edo zelan izan dan baiña nik beintzat aldiero eta noizbeinka artzen dot "EUSKERAZAINTZA" Euskeraren Erri Akamia aldizkaria eta oraingoan be 1996"garrengo Urrilla-Gabonillaren XXXVII"garren zenbakia darabilt eskuetan. Lenengo ta bein Aita Santiri egiñiko omenaldia dakarrela esan bear. Eleizkizun labur bat egin ondoren, Karmeldarren lekaidetxerako bidean, iturri baten ondoan irudi bat jarri deutoela, Lertxundi'tar Mike] Angel irudigilleak egiña. Trebetasunez eginda! Aita Santi'ren oroitarria dagoan tokira joanda, antxe, Olazar'tar Martin abade jaunak agertu eban irudia. Onezaz gaiñera ainbeste jente ezagunaren argazkiak ikusi ondoren, ospakizunera joan guraz eta ezin izan ebenen, edo joan barik geratu ziranan egarria asetzeko, albiste onexek emoten deutesadaz, aukerea izatea eskertzeko prest nago eta egoki deritxot.

Onetara, nire aspaldiko adizkideak agurtzen dodaz ZER aldizkari onen bidez, alkartzeko edo zeozer ezagutzeko abaguneren bat izaten dogu-ta.

LARRONDO

OÑATIBIA ta AUDELA'tar Manu, EUSKERAZAINTZA'koa.

—Donostia'n il da 1997 ko epaillaren 12'an.

—Bere aide illeta egin zan Zarautz 'en urrengo egunean.

—EUSKERAZAINTZA'ko bere adiskide ta lankideak euren samintasuna agertzen dautsee Bizkai'ko EUSKERAZALEAK ALKARTE'ko lankide guztiak.

—Manu'k benetan maite eban Bizkai'ko euskerea eta alegin guztiak egiten izan dauz euskera au galdu ez daiten.

—Urte batzuk dirala gure Euskal-Astea itzaldi gogoangarri bat egin eban eta azkeneko eskaria auxe izan zan: Bilbao'n Arana'tar Sabin'eri oroitarri edo irudi bat ipiñi bear jakola, Bizkai'ko euskerearen aide egin eban lanagaitik eta Euskalerrri osoaren alde egin ebanagaitik.

—Europa tik lortutako laguntzaz, ikastoletan euskera irakasteko irakasbide bat argitaratzen ibilli da oraintxe.

—EUSKERAZAINTZA 'ren eta Erri-Euskeraren laguntzarako iraspen bat sortzeko bideak aurreratuta itzi dauz.

—Euskerea bultzatzeko oraintsu sortu dan UNIBERTSO taldera gogoz sartu da.

—Illero ekarten izan dauz EUSKERAZAINTZA'ra errian batutako esaldi jatorrak, gero izen ori daroan aldizkarian argitaratzeko.

Eleiz-taldeetan naiz errigintzarakoetan lankide nekatu-eziña izan da.

— Euskalerrrian berak izten dauan utsunea betetzea oso zaila izango da.

—Izan begi gure adiskide ta lankide zintzoak Aitaren Etxean betiko zoria.

—Urrengo "ZER"en barri geiago.

OLAZAR'tar Martin  
ZER 'en zuzendari eta  
ESKERAZAINTZA'ren  
Lendakari danak

---

---

# ERRIKO EUSKALKIEI BULTZADATXO BAT

---

---

Begira eta irakurri "EGIN" egunkariak urte onetako zezeilaren 18'an Arrasate (Mondragon) erriko albisteen artean dakarren barria.

Egunkari onen barriak itzez-itzez emen ipiniko dodaz, ortografia apur bat egokituz, eta bakoitzak zer aterako dauan pentsatu daiala.

"Arrasaten agozko artu-emon geienak geure bai-larako berbetan egiten dira".

"Arrasateko euskalkia lantzea edo agozko euskeraren obetzea dau elburutzat, Arrasate'ko Udal Euskaltegiak antolatu dauan azken-ikastaroak".

"Arduradunak gai onetan eginiko ainbat azterketaren arabera, gure inguruetako euskerak arreta berezia bear dau, batez ere eguneroko bizi modu arruntean agozko izkerak sortzen dituan zalantzak ekiditzeko (kentzeko)".

"Arduradunen esanetan, euskaldun zar alfabetatuak eta euskaldun barriak, funtzio lokalean bein-

tzat, Arrasate'ko euskalkia erabiltzeko gogoazal-tzen dabe".

"Eta euskaldun barriak, natiboekin itz egiteko eta agozko artu-emonak sendotzeko, emengo euskalkiaren ezaugarriak ezagutu gura dabez".

"Beraz, euskalkien erabilpen zuzena ikastea, eta euskalkiaren aberastea, izango litzateke elburu".

No Comment

Iñaki Goikoetxea



## **Eusko Jaurlaritzaren Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAK'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal batean eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreátegi, 14, 2', eskoia. 48001 BILBAO

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozen guztioi.

---

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---

---

## DEI ABERTZALE BAT

---

Aspaldi ontan, eusko abertzaletasunari buruz, zurrumuru txalogarri bat sortu da gure artean. Bere gaia, agian, aberkide guztien gogoari eragin, abertzaletasuna zuzpertzeko, eta ortarako zelan danok batera jokatu erabagiteko.

Oraintsu izparringietan sarritan erabillitako arazoa dogu, ta ez dira gutxi arduratu diranak.

Jakiña da, gure ZER aldizkaria euskerea, batez be bizkaiera, sendotu ta zabaltzeko sortu zala; beraz au da bere, zeregin eta elburu bakarra. Baiña, Euskal-Erriari gaur doguzan zori ta egoerak, erigintzako arloak eta euskereak, zearka edo zuzenka, naste ta alkar zerikusi estu ta aundiak dabezan ezkerreko, batzuetan, esparru onetan sartu ta bertatik igaro-bearrean aurkitzen gara. Olatuak, guztiokin begiramen aundiagaz inor gaudituz edo erdeinatu barik, ibiltzeko, alegiñak egiten doguz.

Juan dan Abenduan Madril'eko Karlos III deritxon Ikastola-Nagusian, Inazio Oliberi jaunak itzaldi baten egindako agerpenak, izan ziran len aitatu dogun zurrumuru baikor eta itzaropentsu abertzale artean sortu diranak.

Eusko Jaurlaritzako Ezkuntza sailburua eta EA'ko iddzkaria danaren iritziak, abertzale erkal edo demokratiko guztiak ezinbestez lankidego eginkor, asmo bizi ta sendo bategaz, onartu bear dabe eta ekin beste zabaldegi edo lekuetan, abertzaletasuna edatuz.

Amar urte dira bereizketa izan zanetik. Ara emen Oliberi jaunak, orain egiten daun gogoramen zinezko ta sakonean, zer adi-erazten daukun. Gure abertzaletasuna bein gaur dagon maillara eldu ondoren, agiri danez, gelditu ei-da ta or dogula aldagetasun ori garaitu eziñik. Beraz, ibilgetasun au goitu bearrean gagozala. Ortarako abertzale guztiak, asmo ta indarrak bat-egitean, egoki izan daiten antolabide on bat idoroteko, alegiñak ein bear doguzala.

Au dala-ta gizadi abertzale demokrata artean, era batera, bai EAJ-PNV, bai EA'koak eta esparru oneitik kanpo egon leitekezan guztiok, Oliberi jaunak esandakoak atsegintasunaz eta baikorki onartu ebezan.

Mota guztiko abertzaleak alkarlanean aritzen ikustea, aspaldiko asmo ta naia doguz. Norbaitek be, zintzoki ta onez onean, itaundu dau: Eta zergaitik orain amar urte gengoan bezela, ez bariro danok bat-egin?

Gasteiz'ko alkatea dan Kuerda jaunak, eredutzat aritzen eban. Alderidikeria sortzarazi ta gero, damututa, berak artu eban erabakia tolesgabe eta bidezkoa ei-zan: benetan txalogarria. Beronek esan eban etxetik urten zala beste Jarrai-Bide egokiagoaren billa eta, idoro eziñik, nora ezean ibilli barik, lengo egoitzera biurtu zala. Orra or-geitzen eban azaltzailleak-erabaki jarraigari bat. Danok olantxe jokatuko ba gendu!

Edestu dogun gertaera, ez da baten iritzia baiño

(amets polit bat esango neuke) eta oso itzalgarria; baiña bere ondoan beste batzuek, ain itzalgarriak, jarri leikez.

Zalantza barik, aitatu doguzan Oliberi jaunaren gogoramen ta iritziak, eusko giza-gogo barrenean aspalditik oso sustartuta dagoz. Baiña, zoritxarrez, bakerako ekinbide on bat onartuta jarduntzeko dagozan eragozpenak, sarritan ikusten dira.

Eusko Lege-Biltzarrean, alderdi arteko autapenetan izaten diran ainbanatze edo bardiketak, batzuetan, gelditasun aundi batera eroaten gaitue. Olako edo antzeko oztupoak goitzea ez da gauza erreza. Arazo oneitan alderdi artean ez dago bear dan egi-zaletasuna, azalke-ria baiño. Gauza bat da gogoan dagozan asmoak eta beste bat agoan darabiltzenak; oneik, bigarrenak, dira bakoitzak berari on-egiten jakonean, agertzen dauzanak.

Giro au, argi ta garbi, oraintsu ikusi al izan dogu Aju-ria Enea ko Ituna'k bakeari buruz egindako batzarrean. Batzarra baiño lenago komunikabidetan, gero batzarrean bertan, eta osteko iruzkinetan, len esan dogun bezela, egi-zaletasun eza ta norberekeria nabarienak izan ziran.

Gaur be, Oliberi'k esandakoak erabatera sendotuz, betikoa agertzen da. Estabaidan luzaro jardun ondoren, azkenean alderdiak erdibitu dira: talde baten eusko abertzaleak eta bestean alderdi espainiarrak.

Lenengoak, ainbeste urtetan ezer onik lortu ez dan ezkerre-dioe-alkarriketaren bidea bearrezkoa dala arazoa konpontzeko. Alderdi espainiarrakaz, barriz, indarkerizalekin ezin-leitekela elkarrizketan asi egiaztatzen dabe.

Beti bezela, aldatu eziñez eta tinko, gure arerioak naiz eskuma, naiz erdiko edo ezkerrekuak izan, uts egin barik, eusko abertzaletasunaren aurka alkartzen dira.

Bakeari buruz len aitatu doguzan iruzkinetatik, ara batek zer diñon: "Batzuk uste dabe bakea arriskutsua dala, abertzaleen alkartasuna izan leitekela-ta".

Onk gogora dakarst Franco'ren menpekotasuneko estu aldia. Jakiña da, danok eskumatar zintsoak izan bear zirala. Lateralen beste errietan euren abertzaletasuna berortzen asi zanean, eurretariako agintari ospetsu eta audienetariko batek au esan eban: "Naiago dot Espaiña gorri bat ikusi, apurtuta baiño".

Betikoa: Naiz batzuk, naiz besteak; naiz margo batekoak naiz besteakoak, agintaritzan egon, danak dagoz estuki alkarturik, gure askatasunaren aurka jokatzeke.

Geuk, gure aberria ta bere berarizko ezagarriak (batez be gure izkuntza) gaizkatzen ez ba'doguz, inork ez ditu gaizkatuko. Beraz, adi-erazi dogun abertzale guztien alkartasuna bearrezkoa dogu.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER

---

## ITXAS-ALDE BAKIOKO DANTZA TALDEAREN BARRIAK

---

1996. urteko udea joan jaku, eta azken ilabete onei begiradatu bat emoteko ordua da.

ITXAS-ALDE dantza taldeak oso urte lanpetsua izan dau, ekintzez betetakoa, beintzat.

Aste Santuan Istanbulera joan ginan; maiatzean, iru Dantzari Egunetan esku artu, eta uztailean, Turkia eta Errusiatik dantza talde bana artu genduzan, guztira 90 pertsona baino geiago.

Uztailaren 30ean, Bentako plazan eskaini euskuen euren errialde bien folklorea, aitagarria dala, bakiotarrei ikuskizun zoragarria eskaintzeko errusiarren aaleginak.

Geroago, abuztuaren 4an, euskerearen aldeko ekin-tzaren barruan, ITXAS-ALDEk be esku artu eban, udaletxearen aurrean dantza saio txiki bat eginez.

Urtero lez, abuztuaren 15ean, bai goizean eta bai gauean, taldeko dantzari, musikari eta gazte guztiek folklora saio bi eskaini genduzan, urte osoan ikasitakoak erakutsiz. Urrengo goizean, eta ilaren 22rarte, Italiara joan ginan, Agnoneko Nazinoarteko Folklore Jaialdian dantzatzera eta baita Erroma ezagutzera be.

Abuztua amaitzeko, Bakioko jaietan be esku artu genduan, asikerako kalez-kalekoan dantzatzu eta, taldearentzako diru apur bat atarateko asmotan, jai egun guztietan txozna bat zabalduz be.

Irailean oporrak artu doguz, eta oraindino ez dauka-gu zeaztuta datozen ilabeteetako plangintzea, baina argi daukagu, datorren urtean ITXAS-ALDEren 25. urtebe-tetea dana jakinda, ekintza bereziren bat egin bearko doguna.

Asmo orretan, taldearen kondairari buruzko liburu-txu bat atarateko itxaropenaz gabiltz.

Ori dala eta, ITXAS-ALDEgaz zerikusia euki dabon guztiei dei egiten deutsegu, edo datu, edo argazki edo zer-esanik badauke, liburuan agertzeko modukoak, guregana urreratu daitezana. Baita urteurrena ospatzeko nonork asmoren bat izan ezker be. Ea danon artean ospakizun polita lortzen dogun!

ITXAS-ALDE  
Euskal Kultura Taldea

---

## ITXAS-ALDEAK ITALIARA EGINDAKO BIDAIA

Dagonilaren 16tik 22ra ITXAS-ALDE taldeko berrogei kidek Italiara egin genduan bidai eder eta aberatsa. Bidai au Bakion orain dala urte bi egon zan "IL DRAGONI DEL MOLISE" dantza taldeagaz dogun artuemonaren emoitza izan da.

Talde au Agnone errikoa da, Erromatik ekialderantz berreun bat kilometrorra dagoan errikoa. Agnone, Iserniako probintzian kokatuta dago eta zazpi mila bizilagun inguru daukaz.

Bertan eta alboko errietan erakutsi genduan geure folklorea eta gugaz batera Alemania, Togo, Argentina, Georgia, Filipinak eta Italiako bertako dantza taldeak be an izan ziran.

Bidaia autobusez egin genduan ezker be, etxerantz

gentozala, Tivolin "Villa Adriano" eta "Villa d'Esta" ikusi eta Erroman egun osoa igaro genduan, bertako artean ikusgarri eta liluragarriak ikustekotan. Esate baterako "Fontana de Trevi", Koliseoa, Foro erromatarra, Batikanoa eta abar.

Beraz, orokorrean, ikusi daitekenez, oso bidai'aberatsa egin gendun, egunak ondo be ondo aprobetxatu.


Danok etorri ginan naiko pozik etxera eta orain, irailako oporraldia pasatu eta gero, indartsu ekin bearko deutsogu geure lanari, datorren urtean be zeuei euskal dantza ederrak eskaintzeko.

Unai BEITIA (Artza)  
ITXAS-ALDEKO dantzaria.

## ARGIUNEAK

### "Euskara" aldizkaria.

- Eun urte bete dira aldizkaria galdu zanetik.
  - Eun rute ixildu zala?
- Eun urte beteko dira aurtan: 1997'an.
- Eta, noiz galdu zan, ba?
- Kontua ataratzea erreza da: 1877'an.
- Nortzuk ziran atera ebenak?
- Or tartean ebiltzan Arturo Campión eta Juan Iturralde y Suit.
- Noiz ater eben?
- Ogei urte aurrerago: 1877'e'an.
- Zer-nolako zan aldizkari ori?
- Ara amen euren asmoak: "Euskal-napar izkuntza, literatura eta historia gorde eta zabaltzeko".
- Ez ziran asmo txarrak eta okerrak.
- Ogei urteetan agertu ondoren, itzaldu.
- Zergaitik?
- Politika-ikuspegi desberdiñegaitik. Oker aundia.
- Geure Arropain'go aititak esaten eban ze: "Euskadi"ren aurka / gorriak eta urdiñak / guztiok dagite / joko berdiña".
- Madril'era begira daudenak.
  - Bein ara begira jarri ezker... zer?
  - Ez zan makala zeuren aitita ori.




### Aita Santua eta Fidel Castro

- Berriro dakartzu platerera sakistau -bizardun antzeko Castro on?
- Joan dan urteko azaroan lortu eban Aita Santuakin egotea.
  - Zenbat denboran egon ziran alkarrekin?
  - Ogeita amabost minutu.
- Ez dira gutxi minutu Castro orregaz galtzeko.
- Galdu, ez dira era bat galtzen.
- Orrek lengo lepotik dau burua.
- Berba onak esan dauz et asmo onak agertu.
- Caribe ko aizeak kenduko deutso asmo-onen astarran guztiak.
- Eta, zeure aititak zer esaten dau ba, olako arazoetan?
  - Lasuna ez dala sekulan legatz biurtuko.



### Manterola Gabirel'en Iputxoak

- Berak euskeratu ebanan eta argiratu.
- Neuk be badakidaz orrek. Apostu egingo deuzut nork obeak esan.
- Bale da. Ara nik bat esan:



- Pototo'k: — Orrek asa ederrak! Nik, munduan zear nabillega, ikusi dot eliza ori aiñako asa bat.  
Oto galdaragille: — bai, akordatenok nola egin genduan eliza ori baña galdara aundiagoa.  
— Bai? Zertarako?  
— Eur e asia egosteko.  
— Ez dok txarra; baña, neuk esango deutzut beste bat politagoa:  
Mutiko iñoso bat eioan mendian zear bere astoarekin batean, bere esanari erantzuten eutsela konturatu zan:  
— Aizak, i!  
— Aizak, i!  
— Tonto-lapiko.  
— Tonto-lapiko.  
Ez zitzaion gogo oneko erantzun au eta ekin eutson mendiarri:  
— Tonto-lapiko, i.  
— Tonto-lapiko, i.  
— I txerri ustela!  
— I txerri ustela!  
— Madarikatua!  
— Madarikatua!

Sua dariola joan zan bere aitarengana: — Aita, an dagoen batek insultau egiten nau eta ara joan bear dogu arazoa argitzen... Joan ziran; bañan, an ez egoen iñor: Aita, nun da erantzuten ebana? — Mendiak zeuk esandako guztiak erantzuten deutsu. Amen ez dagon beste arazoñik. Zeuk berba gogoak esan ba'zendu-zen, itz legunak entzungo zenduzen... Gaitza zeure barruan dago, seme, eta ez mendian.

### Otoitzerako Tallarrak

- Tallar oneri TOV esanten deutse erderaz?
  - Bai, Talleres de Oración y Vida.
  - Orretarko Tibet'erako joera dago, Orienter'asko.
  - Ez daukazu ara joan bearrik.
  - Nork asmatu dauz, ba, orrek tallarrok?
  - 1952'apaiztutako Ignazio Larrañagajaunak.
  - Larrañaga ba'da, orduan Azkoitiarra da; eta Ignazio ba'dau izen, jesuita.
  - Ez, ba; ez dozuz asma ez bat eta ez bestea: Azpitiarra da eta franziskotarra. Aspaldiko urteetan dabil, munduan zear, billerak sortzen, Jainkaorekin artu-emanak ikasteko. Eta billera oietatik asiera izan dabe zorioneko Otoitzerako Tallar onek.

### Zumarrak

- Kaxio, aspaldiko, nun bizi zara orain?
- Ni Zumarretan.
- Joango gara zeu inusten.



Bigaramon ian:

- Krispulo ikusi dot eta etxia aldatu dau.
- Eta, bizitza nun dau?
- Zumarretan.

Joan dira bi lagunek Zumarretara; bañan, an ez dago iñungo etxerik.

- Gure lagun ori gezurretan dabil.
- Bai. alan emoten dau. Zumarrak badagoz "Zumarra-etxerik", ez.
- Etxean imiñi ba'leu idazkun bat "Zumarrak"...
- Ez dau ezer imiñi. Baña, txotxo, begira ara gora. Zer ikusten dozu?
- Txabola bat bi zumarra artean.



- Orduan, egia esan dau.
- Bai, askotan gertatzen da, egia izaten dala, sinisteko gatzena.

### Mao eta Errosarioak

- Zer ikusi dabe errosarioak Mao'rekin?
- Or ibilli da Mao Eliza ezin txikiturik.
- Autsak be, aizeari emonda.
- Bera ilda eta Jende kristaua amasa artzen asi danean...
- Zer?
- Or daukatzuz kalean en-osario santuak saltzen.
- Amen egin be ez dira egiten.
- Txina'n, berriz, egin eta kalean saldu.
- Au ez dok iñork entendiduten.

### Bi belarri

- Gazte arroputs bat ari zan berba-katillu, etenik gabe, jende zarragoen aurrean.
- Eta, zer esan eutzon aitak?
- Mutil, Jainkoak emon deuskuz ago bat eta bi belari; izketarako mingain ba eta entzuteko, bi belarri.

— Ondo esana. Ba'dakizu bigaramonean zer gertatu zan?

- Ez.
- Morroi bat salatu eben lapurtzat, eta, besterik gabe, mutillak morroia kalera bota eban.
- Eta, aitak zer?
- Seme, bi belarri dauzkaguz: bat salatariari entzuteko eta bestea, salatuari... Orduan erabaki bear cla auzia.

### Herrera, kardenala, aldaretara bidean


- Herrera kardenaka, non zar?
- Berrogei urteetatik gora apaiztu zan bat.
- Eta, bitartean?
- Ekintza Katolikoan Ian egin.
- Zertan?
- Aldizkarietan, batez ere.
- Zer aldizkari?
- Gerra-aurreko El Debate egunkarian.
- Eta, apaiztu ondoren?
- Santander'ko Astillero auzoan, apaiz gazteentzat etxe bat gaso zuan.
- Zertarako?
- Gizarte-auzietarako prestatzeko. Laister Gotzai egin zuten.
- Nungo Gotzai.

— Aizkenik, Malaga'koa; baña. beure apaiz gazteekin lanean segi zuan. Gazteiz'ko Apaiztegia ere, iru urtez. udaran bi illebeteko saioak antolatu zituzten Españi'ko apaizentzako. An ibilli nintzan neu eta dozena bat euskaldun, Jose Mari Arizmendi arrieta tartean gendula.

- Bertara etortzen zan ala?
- Bere ikasle apaizak, bai. Aietatik bi Gotzai izan dira: bata Gonzalez-Moralejo Huelva'ko Gotzai eta Benavent, militarren kapelau, Gon-gotzai, bestea.
- Eta, zuen artean ez al zan iñor Gotzai kargura eldu?
- Bai, katalan bat: Masnou, Urgel'eko izan zala usten dot.
- Eta, euskaldunen artean?
- Ezta benefiziadu bat, be.
- Ain txikia al ziran zuen buruak?
- Ba, besteen añaiko buruak, bai; baña, marka bat genduan koronillaren erdian estapanputa: Gazteiz'ko Seminarioan sortuak.
- Zer ikasten zenduten?
- Gauza asko eta aien artean Ekonomia eta Gizarte-auziak.
- Eta, apaiz oiek bazekiten Ekonomiarik?
- Orretarako eta Gizarte auzietarako. Madril'eko Ikastola Nagusiko irakaslerik onenak ekarri ebezen Gazteriz'era.
- Eta, orain, Herrera ori, aldaretako bidean doa?
- Bai, alan dirudi. Eta, lortuko dabe.

### Bibliatik Iskirimiriak

- Zer da iskirimiri ori?
- Txistek, mutil.
- Eta Bibliaren kontura txistek badira?
- Ona amen bat: Zer egiten eban Eba'k goizero, Adan esnatu aurretik?
- Eguzkitan egon ezker, itzala.
- Ori astoak egiten dau; baña, Eba'ren lenengo lana zan saietz-ezurrak Adam'eri ondo astertu, ia besteren bat falta ote zitzaion.
- Ez dago txarto.
- Beste bat: Rabino batek bere semeari galdetzen dio: — Zein zan Moises'en ama? — Faraon'en alaba. — Ez, mutil, ez. Faraon'en alabak Nilo ibaiaren ertze batean topau eban, saskitxo batean. — Bai, bai, aita, ori berak esanikoa da...



---

# KATALIN ERREKAGARBITZAILLEA

## (4N. SARIA)

---

Oraindik amaitu ez dan gure gizaldi onen lenengo ogei ta bost urtetan Euskalerriko itxas ertzeko errietan bizi ta arrantzale ogibidea gendunok, gaur baño neke, estutasun, zotin eta negar aldi geiago igarri eta ezagutu gendun gure etxeetan.

Batetik eskola askorik ez gendun; maisurik be ez. Origaitik gure aittitta-amumen oituretan bizi giñan, eta oneik be euren zarretatik ikasitakoaz bizi ziranez, gure oiturak eta jolasak bizimodutik ikasiak ziran, guk geroago ezagutuko dogun zirt-zart-eko aldakuntza eta oituren goitik berako iraultza barik.

Gure amumak esan be egiten eban lenakoak ume jaio ta ume ilten zirala, iñuzente iñuzente.

Erri batzuk, itxasertzean egonarren eta portuak deituarren, ez euken porturik.

Arrantzara txalopetan urten al izateko, mareak errekan sonda egiñarte, ur-arka antzerakoa egin arte itxaro bear izaten eben. Zenbat eta txalupa andiago, txarrago, ugaro edo oxin (kaladu) geiago bear izaten ebelako uretan ibili al izateko.

Eta ori arrantzarako urteetarako zanean, ez zan ainbesteko, azken baten itxaso larri edo ekaitz itxurako eguna ba etorren, etxean geldittu eta kitto. Gero izaten zan goseak eragindako etxeko egoera larria.

Okerrago izaten zan itxasora urten ondoren, an ebiltzala galarren bat sortu, tatarrez sareak eta apari-xuak itxasoan batu eziñik laga bear (eta ori arrantzale geienentzat gerorako ondamendia izaten zan) eta etxerako bidea artu eta portu aurrera eldu naian asi, erdi-etenda eldu, olatuen zabunei eutsi eziñik, eta portuan ezin sartu zirala konturatzean, oraindik sarrerako bear aiña marerik ez egoalako edo ta portuko aoan sartzen eta apurtzen ziran olatu andien eragiñez, ittoteko arriskuan eutsi bear, portu egaleko aitzetara sakadaka eroaten zituen olatuei tarterik ezin artuta, erramuak eskuetan eukezan agureak geiago eziñik bertan bera etsita geratzen zirala, eurekaz jabuetzen zan bizi-bildurpen salbeak errezatu eta lenago be iñoiz egin zituen ermitara belauniko joateko promesak bein da geiagotan errepikatzen.

Eta eurekaz joatzen zan "txo" gaztea, mutiltxo mandataria, oraindik bizarrak urten badako mutiltxo

laguntzallea, txalopako belako zarren artean tostapean eskutatuta, barruari eraginda, aienaka eta zizpuruka.

Bertan bera etzi baño len, olatuen barealdien baten portuan barrura sartzeko une egokia zabaltzeko azti barik, indarrak aulduta eta etenda, il edo bizi barrura sartzea erabagiten ebenean, asko izaten ziran txalopak, indar eta adore barik, olatuen mende sarreran bertan ondoa jo eta tira bira egin, killaz gora geratu, lemia galduta ta gizonak portu sarrerako atxetan edo arri jaurtietan batzen ziran erritarrak jaurtiten eutsezan txikot eta salbabidei esker, konort barik, baña bizirik tatarrez artu eta etxeratzen zituenak.

Ainbeste igaro eta biaramonean, ogirik be ez euken etxean, ama zarrak mutilla okindegira bialdu bear, "taia" eskuetan ebalu, lotsa-lotsa eginda okindegira joan bear, besterik ezean ogi sopak jango ba ziran be. Eta okiña larri, ainbeste zorrei erantzun al izango ete eutsen, lengoak gitxi zirala orain txalopea be galduta, kezkatu bera be, bere "denboraletzan", berak esaten ekian lez, erririk geiena zalako era bardintsuan ebillana, eta berari, napar urun saltzailleak gero ta zekenago agertzen jakozalako.

Orrelakoak gogora ekartzean, zer esan Bermeolako erri txiki baten 1912 udako gau gangar eta aize-tsu baten 115 lagun, danak gizonak, itxasoak iruntsi zitun lako gertaetaz?

Andik egunetara geratzen ziran txalupak itxasoratzen asi ziranean, andrak eta umeak euren aita, gizon edo semeei leiotik agur egin ordez, leioak negarrari eutsi ezinda itxi egiten zituela esaten da ta etxekoak kandelak biztuta otoitzean geratzen zirala.

Ala ta be guretarren bizia laster asten zan negarren ittotasuna gainduten. Laster sortzen ziran amets barriak, geien bat itxasoari arriskua kendu nairik, or asten zalako gure erriaren gurutz bidea.

Itxasoaren ibilbideei mollak atara bearra premiñazko zan, urei sakontasuna billatuz, erreketako basak eta loikeriak batu, osasunagaitik, bai eta txalope onbiderako be.

Orrelako lanak, udaletako paperak guzurrik esaten ez dabenez, ba dakigu etxeetako emakumeak egiten-zituela.

Gure arrietan andrak lan egitea ez zan arrigari. Or agertzen dira batelen erabiltzalleak, "batelerak", Pasaian lez; edo ta leorretik txalopei tengadaka sirgan egiten eutsen andrazkoak, batez be portuetan txalopa andi eta gabarren zamak erabilten zituen andra langilleak; gizonezko argin edo lanetako maisu bat buru ebela itxas ertzetako ondartzak eta iatzak ondarrez beteten ibili ziranak, lepoan kopletak erabillezala; ortik gero molla barriak egin eta gizonentzako portu erasogoak egin al izateko.

Ba ziran lan zikin-zikiñak be, gerrirarte uretan sartuta ibili bearrekoak, basa zikiñez kopaletak bete eta buruan ipini ta ur eta basa dariola euren kolko eta lepoak zearko jarioetan erabilten zituenak, erreka erdian gertu eukiten ziran gabarretara uztuteko, euretan itxas zabaletara basak eta zikiñak jaurtiteko.

Andra eder eta galantak, indartsuak ziran, edozetara gertuten ziranak, itxasoaren onurak ez ebelako beteten etxeetako premiñik, eta zorrak itto ez egiezan.

Orrelakoa zan gure zarren bizitza.

Arriskuz betea gizonena, olatuen orru itzaletan lo ta... askotan nun itxartuko ziran ez ekiena.

Neke-miñei emona, eskeinia, amaena. Eta etxean ama-ordetza egin bearrean gertuten ziran beste emakume askorena.

Lenakoena, iñuzente jaio, garratz bizi eta atseden antzera, askotan, auleriak edo gaxoak jo ta iñuzente-iñuzente il.

Oneitako bat katalin zan.

Atso zar ezagutu neban Oean etzanda, jagiteko adore barik.

Berak eroapenez eroian bere zartzaroa, eta biziteko iraupen edo indisiño lez umetako kantu zarrak gogoratzen pasaten eban eguna.

Ez eban bere lan arriskutsu edo zikiñik gogoratzen. Orrelakorik ez. Esan be egiten da bein adin batera eldu ezkerero, oraingo gauzarik ez dala gogoratzen, eta orde z umetakuak en-az gogoratzen dirala.

Katalin oeak "artuta" bizi zan. Eta sasoi bateko kantuak gogoratzen ekiazan eta eurekaz jolastu. Neke andi barik.

"Kukumiko kañola,  
kañaberia lanosa,  
pitxote ta pitxote  
jaunak nora zoaze?  
Kalian gora, kalian bera  
biribiltxua alkate.  
Eskuan daukat auzixa.

poltsan urregonixa,  
amumatxuak ba lekixa  
atako leutzake begixa".

Arrituta geratzen ziran bera ikusten joaten ziranak, baña etxeakoak esaten ekien orrelako gogorapenetan ordu baketsuak emoten zitula, bestela or ibilten zala oean gorputzari tokirik ezin billatuta, batari deitu eta besteari oea aldatu eragin eta keixu eta keixak agertzen.

Bein orrelako kanta bat gogoratzen ebanean, egunetan jarduten eban. Baña kosta egiten jakon barri bat gogoratzea.

Norbaitek belarrira sarrera emon ezkerero, ba ekiazan arin luzatzen. Bai eta guk erdi-galduta edo ezin asmatuta asitako bateri, puntea arin luzatzen. Baña konturatzen zan edo igarten eban berak bere erara ekiala zerbait, eta andik ez eban iñok atarako.

Beste egun batzutan... bere artean asiko zan:

"— Katalin goikua,

—Zer dozu bekua?

—Ba zatoz iturrira?

—Ezin neike etorri.

\_ Zer dozu ba?

—Senana etorri.

\_ Zer ekarri?

—Zapata Kaltzerdi.

—Ze kolore?

— Gorrixe, Zurixe, Kikirriki!"

Eta Kikirriki, kikirrikika, oeko izara tartetik bere ainka azpiak ezin atarata ibilten zan eta ez zan geratzen bietzat erakutsi arte eta bane algara egin, bear ba da "apain apain egoala" ta arrotasun aizeagaz.

Baña egunak joan, egunak etorri, gero ta zimelago ta aulago igarten zan. Lo konkor. Eta bein ordurarte iñoiz entzun ez eutsen kanta erdi lotan esaten igarri eben:

"Lua, lua, santa lua,  
zeru altuko Jaungoikua.

eragiozu umetxo oni

ordu bi edo iruko lua".

Eta "lua, lua Jaungoikua..." ortxe eten jakon kantea.

Zurru-zurru, arnas estu, larritasun irriparrea... ta agur egin eutsan munduari. Ikusten ioazenei, etxeakoak eroapenez esaten eutsen:

Koitadea, orrek ezagutu ebean mundu baltza... eta iñuzente-iñuzente il da.

ZUBIKARAI'tar AUGUSTIN

---

## MAULEKO IKASTOLEA LARRIUNEAN!!

---

Maule Xiberoko uriburua dogu. Badakigu Xiberoa Euskalerriko errialderik txikerrena dana, lurraldez zein biztanlez.

Xiberoa Iparraldeko errialderik txiroena be bada, ez dago an ia bape industriarik eta. Baiña beste aldetik, euskal kulturea ondoen jagon izan dauan Euskalerriko lurraldea da izan. Bertako "eüskara" goxoari zelan edo alan eutsi ian deutsoa orain artean xiberotarrek.

Azken urteotan, baina "eüskarak" beerakada andia egin dauana ikusita, euskalduntasunari eusteko ikastola bat, EPERRA deritxona, sortu eben Maulen orain dala ogeita bost urte, gitxi gorabeerra.

Urteak joan urteak etorri, ainbat izan dira an ikasi daben umeak. Gaur egun 65 ume daukaz beraren babesean.


Baina, gauzak okertu egin jakez azkenaldiotan. Ikastola-etxea zaartu eta arrakalez bete jake. Noraino? Ara, aditu! Ormak arrakaldu ezeze, ormok ezotasunak ta sitsek ja eta sabaia zulotu arte be. Itoginak edonon. Askotan, klaseak aterkinnen babespean emon bear izan dabe eta. Beea be, euri-urak janda. Neguan, ikasgeletan otz, kanpoan

baino otzagoa. Aizea sartu...!", azurretaraino, sartu be. Aurtongo neguan, esaten baterako, ikasgeletako otza eta ezotasunari eutsi ezinik, traste eta aulki guztiak artu eta aterpera urten bear izan dabe, klaseak artuten urten be. Barruan eutsiko euskion ama-umreik ez egoan eta!

Egoera negargarri onetan, orain dala bost urte egoitza barriaren bila asi ziran. Maulen egin ezin izango dabenez, ikastolea beste erriren baten eregitea erabagi eben. Eta egoitza barria aurkitu egin, Sohüta errian aurkitu be. Baserri zaarra erosi eta egokitu bearra dago eta orretarako dirua bear dabe. Arik arinen an asteko!

Bertako, Xiberoko udaletatik laguntza urri izango dabe, udalik geienek ez deusse lagunduko eta. Gurasoek, orduan, ikastolea eurek euretara eregiko ebela erabagi eben. Orretarako, 20 milioi pezetako mailegua eskatu dabe. Eta osterantzeko 20 milio pezeta lortuteko, Euskalerrian zear asi dira diru batuteko kanpaina zabala eratuten. Eta Bizkaira be, ZERen bitartez, areen larritasuna eta laguntza gedarrak ekarri gura izan deusueguz. Lagundu daiegun, ba!

Iniaki MARTIARTU  
1997ko epailean



### OARRA:

Laguntzak batuteko, beste ekimen batzuen artean, laguntza bonoak kaleratu dabez Euskalerrian. Bono bakotxak 4.500 pezeta balio dau. Inork argibide geiagorik gura izango baleu, urrutizkin zenbaki onetara deitutea baino ez leuk euki-ko:

EPERRA Ikastola / HABIA Elkarte  
Evades de France karrika, 12  
64130 MAULE-XIBEROA  
Urrt.-zkia.: ++33.5.59.28.33.78

# "EPERRA" MAULEKO IKASTOLAREN EGOERA

## 1.- Zer nolako egoeran dago gaur egun Mauleko Ikastola?

Egüinko egunean 66 haur bada Mauleko ikastolan, 5 erakaslekin (4 denbora osoz eta bat denbora erdiz), 4 eüskarazko erakasle eta bat erdararen erakasteko.

Ikastola, Maule Herriko Etxearen prefabrikatü zahar eli batetan kokatzen da. Oso egoera latzean gira, umitate handia bada, termitak badira, zoladürak ustelak dira, noiznahi zilatzten dira. Gainera, kanpoan ez dügü aterberik.

## 2.- Erakaskuntza

Xiberotarrez emaiten dügü. Erakasleer moldatze lan handia galtegiten deikü. Lehen mailako urtetan, textoak xiberotarrez emaiten dütügü: ützülpentak edo batuazko arra moldatzea, edo gihaurk asmatüak. 8=9 urtetarik aitzia, batuazko libürüak erabilten dütügü (Baga Biga matematikan, Axelko, Otsoko eta Beleko sailekoak hizkuntza gaientako).

Gure helbürüa da, gure ikastolan, ikasketak ürrentzen dütüelarik (11 urtetan) gai izan ditean



## IKASTOLAK

bai eüskarazko ildoan jarraik dezen edo frantses eskola batetan. Erran behar da, Seaskaren bigarren mailan Kanbon dela, Maulerik 65 km-tan. Badakie harat joaitez, barnetegian egonean direla arte osoko.

Azken urte horietan, %50k, nonbait han, Kanbon jarraikitzen dii.

### 3.- Ikastolak nola iraiün dii orain arte?

Ikastolan beren haurra(k) ezarriz, etxekoek badakie hilabetekal behar dükeela sosa eman. (400 L hilabeteko) Bestalde, besta talde azkar bat badügü eta jai hanitx antolatüririk da. Kantaldi, dantzaldi, apaidü egitea (azken urte hauetan, Pastoraletako bazkari eta aihariak ikastolak dütü adelatzen (prestatzen).

Herriko Etxeer ere sos lagüngoiz galteginik zaie, bena aski gütik ihardesten dü.

Hala ere, erran behar da, 1991.az geroz, erakasleak Hezkunde Nazionalarekin kontratü pean girela. Hantik dügü esküratzen gure hilabete saria (apalena: lagüntzale gisa hartzen gütüe). 1994an eskola estatutoa ezagütüririk da.

Hortako, langileer (erakasle ta beste) baldintzak zailtü zaizkü. Bortxatü gira formakuntza jarraikitzea gure postüen titularizazioaren ardies-teko.

HABIA= 1901 .ko legeko alkarte bat da. Bere helbürüa da, ikastolaren sos bharrez ihardestea. Partaide dira, bürrasoak, erakasleak eta lagüntzaileak.

Ikastola bernia, 1992.az geroz dügü ideia hori бүrüan, gure egoera txarra ikusiz giren leküan.

Beti nahi üken dügü alkarte publiko batek hardezan bere gain obra jabegoa. Eskola publikoa izatea da gure helbürüa.

Hortakoz, igaran üdan, Xiberoko Herriko Etxe baktxean, galteginik izan da 15 L x jente baktx x 15 urtez.

Gehiengoak ez dü onartu.

Ez ginen haboro haindürü egoiten ahal. HABIA alkarteak, beraz, delibertü dü Sohütako etxe horren erostea.

Gaur egun lanak hasirik dira eta dena giro ho-

nean igaraiten da (nahiz eta jente lagüngoia **-eskiüz** eta **sosez-** behar dügün).

### EÜSKARAREN EGOERA

Beste probintzietan bezala, hanitx galdu da.

Belaunaldi batek kasik ez dü haurrer erakatsi.

Maulen ez da kasik eüskara entzüten. Edo entzüten bada, beste herrietako jentea da.

Maule üngürüko herrietan dira haboroenik deseüskaldüntütrik.

Bena, erran nezake Xibero osoan kezkarria dela.

Gazte gütik mintzo da eüskaraz, erran gabe haurrak!

Ez da haboro familiaren bidez egiten den transmisioa. Ikastolak eta AEK-k badüe non zer egin!

Xiberoan bada beste ikastola bat, Atarrarte ondoan (Alozen, xüxen erraiteko). Hor, 12 ikasle, ama ikastola, baizik ez da. 6 urtetan, ikastolan jarraiki nahi düenek, gure ikastolala horra dira.

Beraz, Xibero osoko, 2 ama eskola eta lehen maila bat.

Odette MOHORADE  
EPERRA ikastolako züzendaria  
Maule-XIBEROA

Maulen, 1997ko.02.22a

Egun hon Iñaki.

Barda aipatu bezala, 2 afitxa ttipi igorten deiat.

Horiekin batean, jüntatü günüan sos galtatzeko gütüna / bata Hego Aldean eta Lapurdin-Baxe Nafarroan zabaltü dügüna; besta, giltzdüna, Xiberoko etxe baktxak esküalatü düana.

Jüntatzen deiat haborokin, "Aizu" aldizkariarentzako egin nüan artikülüa, igaran hilabetean.

Hiaurk ikusiko dük zerbait egin hirokeanez.

Besterik gabe, üzten haüt egünko.

Besarkada bat.

Berriz arte.

Odete

# JAUNA, EZ EGIN GEIAGO EMAKUMERIK

Izenburu au dakar Indiako lurraldean argitaratzen dan "Gujerat" aldizkariak. Onan diño:

"Jaungoiko maitea:

Indiako emakumeei zer jazoten jakun esatera natorkizu. Zuk ulertuko dozula ba dakit, baiña lur onetako jendeak ez dot uste.

Gure amak ixilean euki gura izan dau... Baiña gure ama ume bat mundura ekarteko zorian egoala jakin dot. Geixoetxe batera eroan eben. Eta an ume jaio barria neskea zala ikusi ebenean, osagilleak bizi kendu eutsan, eta ilda jaio zan.

Eta zergaitik ori? Nire aizta txikiak ez ete aukun mundu au, bere lora eta izartxo politaki, zein ederra dan ikus-teko eskubiderik?

Mundu onetan txarkeri asko egiten dala, uste dot.

Shila, nire neska lagun txikia, lengo egunean geixotu egin zan, eta ez eutsoen osagileari etorteko esan. Bere ama umea oean itxita, lanera joan zan, eta andik etxerakoan Shila ilda egoan.

Zuk uste dozu, Jauna, ni geixotzen nazanean, Shila lez, ni ere ilten itxiko nabela?

Lengo egunean gure aitak nire nebeari, mutilla zalako, soiñeko barri bat ekarri eutsan, baita liburuak, oiñetakoak eta pelota bat ere. Baiña niri, andiagoa izan arren, ez eustan ezer ekarri.

Nire soiñekoak zarrak dira, eta oiñetako barik, ortozik nabil, eta eskolara joan bearrean etxeko lanak egin bear dodaz: goizean goiz jagi, nire nebeari gosaria prestat, gero etxea txukundu, eta abar.

Zergaitik, Jauna, nire nebeari orrenbeste gauza, eta niretzat ezer ez? Itaun au egin neutsan aitari, eta onek erantzun eustan: nesken eginbearra ez da jolastea, etxeko lanak egitea baiño. Eta gero esan eustan: laster amar urte beteko dozuz, eta lantegira joan bearko dozu...

Laster afaltzeko ordua da. Gure amak "kurry" arroza egin dau aitarentzat eta nebearentzat. Lenengo gizonetzko biak jango dabe, eta gero amak eta biok sobra dana jan bearko dogu, eta ez da asko izango.

Orain, Jauna, beste gauza bat esan bear deustu.

Atzo gure aita eta ama, euren artean, ixilpean, berbaz ikusi nebazan. Zergaitik alan ezkutuan? Ai, Jauna, nik ba dakit! Nire ezkontzari buruz ziarduen. Baiña nik amar urte bakarrik dodaz! Baiña alan da oitura, eta nik zer egin nei-ke?

Orain beste gauzatxo bat ere kontatuko deustut, Jauna. Ba dakizu nire neska lagun bati beste egunean zer jaso jakon?

Landan egoan auntsak zaintzen, eta iru gizon etorri jakozan, eta lotuta basora eroan eben... Arratsaldean etxera etorri zan, negar baten, beste "sari" soiñekoa urratuta... Eta gaiñera bere aitak jo egin eban, esanaz: orain nor ezkonduko da zugaz?

Jaungoiko maitea,

begira Indiako emakumeak zelan bizi garean. Ain txar-to bizi bear badogu, Jauna ez egin geiago emakumerik.

Goikoetxea'tar Iñaki

Otoak bildurtzen nau,  
aragiak dardara,  
pisti usaiñean.  
Mendi bakardadean,  
arnas bagerik nago  
etsai bildurpean.

Pistikeriaren kateiak.

Leioa orroaka  
arkaitzaren zulotik  
papar dardaretan.  
Ai! nere oiñ miña!  
Iruñtzen jatorkit  
ene esturetaren.

Aberezko kateiak.

Diruzalekeriak  
uegerrez il nai ditu  
gizonen biotzak;  
laguna geiago da  
urre ugerrak baiño,  
gizonkeri utsak

Diruaren kateiak

Ondasunezko garra...  
Urreak dizdizetan  
lotu dau biotza;  
-bizi gaieo gogorraz-  
il dautso odol dana  
metalaren otsak.

Metalaren kateiak.

Zapalkerizko itza,  
ez leuke bizi bear  
gogorkeri latzak;  
zerk daroa gizona  
kirtekerietara,  
saminduz biotzak...?

Zapalkerizko kateiak

Onduamuaren griña,  
Lurra ondatzen zabiltz  
gizon biotzetan;  
noz, asetuko zara,  
doillorkeri baltz ori,  
kaskarkerietan...

Ondamusko kateiak

PAULIN


---

## TXORIA ETA PINUA (UME-ANTZERKIA)

---

- EDESLEAK:** Beinola baten, abitik jasitako txori bat izan zan. Egin izaten eban egaz egin eta bakar-bakarrik egonkeran, ikara aundia sartu jakon. Negarretan asi zan, bada, bere ameari deika: "Txio, txio, txio.... ana, ama, ama, ...".  
Baina bere ameark ez eutson entzuten, jana bila asagora joan zalako. Eta txori txikitxua galdu egin zan, here amearen bila ebilela.  
(Uso Xuriaren musikea/abestia)  
(Oial itxiaren aurrean txoria agertuten da)
- EDESLEAK:** Eta ibiliaren ibiliz baso baten ingurura eldu zan. Eguzkia laster lotara joango zan. Ilundia izan zan. Udagoiena izan zan.  
(Oiala zabalduten da. Zugatzat dagoz)
- TXORIAK:** Ene! Zenbat zugatz! Zugatz baten abar batera igoko dot gaua emoteko.
- EDESLEAK:** Eta txoria aretxarengana joan zan. Eta...
- TXORIAK:** Zure abarretan gaua emoten itziko deustazu, aretx jauna? Galdu egin naz eta.
- ARETXAK:** Nire abarretan? Ez, ez, goizean abesten asiko zara eta iratzartu egingo nozu. Zoaz! Alde emendik!
- EDESLEAK:** Orduan, txoria pagoarengana joan zan. Eta...
- TXORIAK:** Zure abarretan gaua emoten itziko deustazu, pago jauna?  
Galdu egin naz eta.
- PAGOAK:** Ez, ez. Udagoieneko aizea nire abarretako orriak kenduten jabiltz, eta lotuten jatazanak jagon egin behar dodaz. Zoaz! Alde emendik!
- EDESLEAK:** Txoria intxaurrengana joan zan. Eta...
- TXORIAK:** Zure abarretan gaua emoten itziko deustazu, intxaur jauna? Galdu egin naz eta.
- INTXAURRAK:** Ez, ez, bear bada, zuk nire intxaurren jangozeunskidaz eta... Zoaz! Alde emendik!
- EDESLEAK:** Txoria leizarrarengana joan zan. Eta...
- TXORIAK:** Zure abarretan gaua emoten itziko deustazu, leizar jauna? Galdu egin naz eta.
- LEIZARRAK:** E, ez. San Joan gauerako ondo jagon bear dodaz nire abarrek, gero, etxeetako atariak apainduteko. Zoaz! Alde emendik!
- EDESLEAK:** Orduan txoriak gedar egin eban. Eta...
- TXORIAK:** Basoko zugatzak! Itzi eistazue zuen abarretan gaua emoten. Mesedez!  
Galdu !
- EDESLEAK:** Baina, besoei eraginda, erantzun eutsoen danak...
- ZUGATZEK:** Zoaz, zoaz! Alde emendik!
- EDESLEAK:** Txoria burumakur, goibelduta, negarretan asi zan. Eguzkia lo egitera joankeran, iretargiak urten eban. Eta txoriak negarretan jarraitu eban. Baina...  
Baina basoaren beste alderdian pinu bat egoan. Ez zan polit-polita. Ez zan aundi-aundia, ez eta indar-indartsua be. Baina, pinua on-ona zan. Eta pinuak olan esan eutson txoriari...
- PINUAK:** Txoria, txoria, erdu ona!
- TXORIAK:** Oi, pinu jauna! Zre abarretan gaua emotn itziko deustazu? Galdu egin naz eta.
- PINUAK:** Bai, erdu. Nire abarrek ez dira politik baina goxo-goxoak dira. Erdu eta egin amen zu bizitzeko abia.
- EDESLEAK:** Eta txoriak pinu-abarretan abia egin eban. Eta abarrek politik ez izan arren, ondo be ondo egon zan an. Eta eguzkia antxe agiri zan ostera be. Baina zer jazo zan?  
(Argi beilegiak)  
Egun baten, negu baltza agertu zan basoan. Negu otz-otza eta gogor-gogorra izan zan. dongea. Eguzkia, ikaratuta, ostendu egin zan eta zugatzak otzez dardaraka asi ziran. Eta negu dongea barreka ta barreka egoan.
- NEGUAUAK:** Kar, kar, kar,...! Eguzkia baino indartuagoa naz. Eta orain, zuen abarretako orri guztiak kenduko deustuedaz, otz andiagoa euki daizuen!
- ZUGATZEK:** Ez, ez, ez! Mesedez!
- NEGUAUAK:** Zertarako gura dozuez, bada, orriak? Txorien abiak berotuteko?
- ZUGATZEK:** Abirik ez daukagu...
- NEGUAUAK:** Abirik ez badaukazue, ez dozue orririk bear.
- EDESLEAK:** Eta neguak orri guztiak bearen ganera bota eutsezan.
- NEGUAUAK:** Kar, kar, kar,...! Danak orri barik! Bazagoze motz, gero! Orain, pinua baino ez dot falta.
- EDESLEAK:** Baina txoriak esan eban...
- TXORIAK:** Zu, mesedez, negu jauna!





- NEGUAK: Zer dozu, txoria?  
 TXORIAK: Mesedez, negu jauna, ez eitsozuz pinuari orriak kendu!
- NEGUAK: Zergaitik ez?  
 TXORIAK: Pinua ona dalako. Ni basoan galdu nintzanean, berak jagon eta babestu ninduan. Eta gero, abarretan abia egiten itzi eustan. Eta goizero, abesten izten deust.
- NEGUAK: Egia ete da ori?  
 TXORIAK: Egi-egia, negu jauna.  
 NEGUAK: Ondo dago, Pinuari ez deutsodaz orriak kenduko.
- EDESLEAK: Eta negua beste baso batzuetara joan zan. Eta pinuak, txoriari ondo esan eutsolako, orriz beterik jarraitu eban. Eta, bitartean, beste zugatzek negar egiten eban.
- ZUGATZEK: Txarrak izan garalako orri barik gagoz!!  
 EDESEAK: Eta orregaitik neguan zugatzak orri barik lotuten dira, baina pinuak orlegi jantzita jarraituten dau, polit-polita, txori galduaren abia jagon eta babestuteko.

— Aukera bi dagoz: jokalaria umeak izatea ala nagusi-txuak izatea.

Joaklariak umeak balitzat (4, 5, 6 urtekoak), olan antzertu bearko litzake: Edesle baten agotsa entzuten dala

(ooltzaren ertz baten egon leiteke, edo baita kanpoan be). Iretargia eta eguzkia, neskato berak antzertuko leukez, ooltzaren ganean jesarrita, pankarta bat aldeandaroa, alderdi baten eguzkia eta bestean iretargia margotuta daukazala. Zugatzena antzertzen daben umeak ooltzaren atzeko aldean zutunduta egongo dira, esku baten or:-idun abar bat dabela eta bestean orribako dira, esku baten orridun abar bat dabela eta bestean orribako beste abar bat. Orretara, negua datorrenean ostobako abarra erakutsiko dabe, eta iruntzietara. Orrez gan, agots guztiak offekoak izango dira.

Jokalaria elduagoak balitzaz, edesleak jarraitu leike berea egiten, orretara, ikusle txikiek gauza batzuk obeto ulertu daikeezan, baina enparauko egotsak, jokalaria bako-txak berea egingo dabe.

Orrez gan, eguzkiak, iretargiak, zugatzek, txoriak eta neguak, bako-txak bere dantzea egingo dabe, eta arik eta musika eta abesti geien sartuko da.

Jantziak lau-lauak izan leitekez, edota guztiz nabarmenak eta irudimentsuak, margodun paperez eginak. Ez da ezelango dekorazino berezirik bear.

(Oiala itxita dago. Musikea entzuten da. Argi gorriak).  
 Amai a.

(egilea: Lurdes Iriondo)  
 Iniaki LARTIARTU  
 1996ko zemendian

### Euskal Jainko Zaarrak

## GARRI DEO

—Gaur, Otsaillak 17, Garizumaren lenengo astelena. "Irteera" liburutik irakurgaia, apaizen liturji-otoitzetan. Seigarren kapituluaren asieran: "Ni, Jauna naizen au, zuen arbaso Abraham, Isaac eta Jakob'ei agertu nintzaizen Mendietako Jainkoa bezela; baña, nere izenik ez nien agertu...".

—Mendietako Jainkoa?

— Bai, Mendi-gallurretako Jainkoa.

— Jainko ori Euskal-erri zaarrarena ere bazan.

—Nun eta nola?

—Nun? Elurretara joaten ba'zera Kandantzu'reraíño, andik beste aldera Aspe'ko ballara dago.

—Aspe? Bizkaian bezala.

—Bizkaia'n bezala eta esan nai berberarekin: Aiz-pe. Andik beera ninjoala, artalde bat ikusi nuen menditik jeisten (26-IX-84), goienetan elurra egoan ugari.

—Euskalduna al da ba, paraje aura?

—Pelota-lekuak ikusi nituen pare bat, jexierako erri txiki aietan. Sarrance dau batek bere izen.

— Pelotan egiten al dabe Frantzia'ko erri txikietan?

—Garai batean denak ziran Pirene-mendietan euskaldun. Akitania'tik onera, eta mendik ara, lenengo pasadizua Orreaga'n dago. Somport'ekoa da bigarrena.


—Andik dago Oloron.

— Oloron laga eta aurrera ba'goan Ekialdera, beste bi ballara bereizi topako dituguz: bata Aran'goa eta bestea Luchon'goa. Auxen da urrutien dagoena; ba;a, bertan be, pelotan ekiten dabe.

—Baña, mendietako jainko ori, nin dago?

—Bi ballara onek alkartzen diran gunean. An dago Saint Beat izeneko beste errixka bat, Garona ibaia erditik duena.

— Garona ala Garonne?



—Garone frantzez izkeran dago; berezko izena, Garona dau. Eta, Aran'era eltzen garenean, Garonne, Garona biurtzen da.

—Orrek be, euskalduna dirudi: Gar-Ona.

—Alaxen da izan be: Gar Ona. Lantxo onen izen burua Garri Deo dozu eta or daukazu Gar ori: Gar-ri Deo.

— Eta, zer esan nai dau Gar orrek?

—Gar, mendi gallurra da: Gar-mendia, Gar-ate, Gar-amendi, Etxegar-ate, Gar-aiko-etxea...

— Ortik al dator Gar-Ona?

—Izen ori ibaiak eraman arren, berez, mendi gallurren izena da. Tontor aretan zazpi errekatxo sortzen dira eta uraren ugaritasunagaitik da tontor a, Gar a, ona. Andik

beera, errekek berak eramango dau Gar-ona izena Burdeos-eraiño.

– Zergaitik ez dau esaten Gar Deo, GARRI DEO esan bearreran?

– Ori idatzita dagoen jainkoen arlosa, jainkoa euskalduna izan arren, GAR, latinez idatzita dago: GAR jainkoari eskeiñita. DEO datiboa da eta GAR ere datiboan ipiñi bear, berba latina izan ba'litz bezala. Orretxegaitik ipintzen dau GARri DEO.

Nola dagoen esan diguzu, baña, nun dagoen, oraindik jakiteko gagoz. Eta, zuk esan deiguzu, nundik asiko ziñala...

– Nun be, esaten nengoen. Bi ballaraño eldu gara: bata Val de Aran eta bestea Luchon. Biak dagoz gaizki idatzita: Val de Aran, gazteleraz eta Luchon, frantsezeraz.

– Zelan bear dabe, ba?

– Biak dira euskaldunak: Aran'ek ez dau Val'en bearrik, bera da Val. Eta, Luchon euskeraz Lixon da. An dago izugarritzko Bañu -etxe bat eta bere aurpegian izen au ipiñi dabe: Balneum Lixonense. Baña, bada-go diskoteka bat be Luchon'en Ilixon izenakin eta au da erriaren benetako izena: Ilixon.

– Nundik ataratzen dozu izan ori?

– Balneum Lixonense etxe berria da baña erromatarren garaian be bazan an bertan bañu-etxe bat. Etxe berrirako oiñariak egiten agertu ziran Lixon eta Ilixon izeneko arlosa asko: Ilixon kainkoari eskeiñiak. Ortik sortu zan lekuaren izena.

– Eta, nundik ataratzen dozu euskal itza dala?

– Il asierako itza, illargia da; Xo arlosa askoetan agertzen da, txikia edo maitekorra adierazteko eta On ere bai, Ona esateko. Berbak murriztu eta moztu egiten dira mintzatzean eta

maiz, iru silabetara. Nik uste Ilixon onda konpontzen dala: Il-i-Xi-On = Illargitxo Ona.

– Ori zeuk asmaurikoa izango da.

– Ba daude arlosak Arixon Deo: latinezko datiboan imiñita. Aizkeneko i (datiboa) kentzen ba'dogu, orra: Ari-Xo-On = Aritxo Onari. Bei-gorriko be aitaten da; baña, bei-gorritxoari ez diote Ona danik bein be esaten. Gaiztoak izango ziren, zezen-plazetara Saka'k ataraten dabezen antzekoak.

– Eta, GARRI DEO astu egin al zaizu ala?


– Bi arlosa daude: bat Garri Deo eta bestea Carri Deo; baña, biak dira berdiñak eta Gar jainkoari eskeiñiak. Pirenee-mendiko inguru aietan arlosa asko billatu zituzten jainko auskaldunei eskeiñiak, Aran, Luchon eta andik onera. Menditik beera bi ballara oiek alkar jotzean, an dago Marignac izeneko erritxo bat eta kaleak ikusten nagoela, zer ikusi nuela urten dozu?


– Esaten ez ba'dozu, ez dot jakingo.

– Rue Du Pic Du Gar. Ara amen, kale erdaldun batean, arlosako Gar euskaldun izena. Galdetu nuan ia nun zegoen Pic du Gar ori? Eta, an erakutsi eusten, Anboto edo Txindokiren antzeko aitz-mutur gorri bat. Gar jainkoaren arlosak galduta egozan eunkietan zear; baña izena, bizirik gorde dau euskeraz ez dakien erri batek.

– Bai, orretan arrazoi dozu: euskera dala gure historiaren gordelekurik ziurrena.

– Alaxen da izan be.





## *Betidanik.*

Itzau begiak une batez eta  
begiratu zeure inguruari.  
Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten  
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat  
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?  
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.  
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin  
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.  
Urbiltasuna, begikotasuna,  
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so  
antziñako sukursal orren argazkiari.  
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein  
bulego ta sukursalekin.  
Ez dira ain ezbarðiñak.  
Azkenean, garrantzitsuenak  
bere orretan diraelako.  
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on  
ondo dakigu BBK'kook.  
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.  
Bahia leengo berberak gara.  
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz  
eta geurez onurak itzultzeko.



**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**  
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK